

**Pertsona Fisikoen Errentaren
Gaineko Zerga
2013**


1

Sarrera

- 1.1 Aitortzeko obligazioaren zehaztapenerako eskema grafikoa
- 1.2 Nork ez du aitortu behar?
- 1.3 Nork aitortu behar du?
- 1.4 Zer da ohiko egoitza?
- 1.5 Zer da familia unitatea?
- 1.6 Zer aitortu behar da?
- 1.7 Zer ez da aitortu behar?
- 1.8 Banaka tributatzea eta batera tributatzea
 - 1.8.1 Banaka tributatzea
 - 1.8.2 Bateratuta tributatzea
- 1.9 Zergaldia eta zergaren sortzapena
- 1.10 Nola aurkez daiteke aitortpena?
 - 1.10.1 Modalitate arrunta: bide telematikoa
 - 1.10.2 Modalitate mekanizatua
 - 1.10.3 Autolikidazio proposamena
- 1.11 Zein da aitortpena aurkezteko epea?
- 1.12 Nola egiten da aitortpenen emaitza ordaindu eta itzultzeko?
- 1.13 Non aurkeztu behar da aitortpena?
- 1.14 Zergaren zati bat erlijio xedeetarako edo beste helburu sozial batzuetarako ematea
- 1.15 Hautazko likidazioa (lanaren etekinak)

1.1 Aitortzeko obligazioaren zehaztapenerako eskema grafikoa

2012KO EKITALDIA AITORTZEKO OBLIGAZIOA



- Jardueren etekinak = Jarduera ekonomikoaren etekinak.
- Errenten egozpena = Nazioarteko gardentasun fiskala, paradisu fiskaletan dauden inbertsio kolektiboko erakundearen egozpena, eta IET eta EABetako bazkideei egindako egozpenak.
- HKE = Kapital higagarriaren etekinak.
- HZE = Kapital higiezinaren etekinak.
- GEHIK = Ondare irabazi eta galerak.
- LE = Lanaren etekinak.
- Kasu bereziak = Ordaintzaile bat baino gehiago egotea, kontratu bat baino gehiago sinatzea, pensio konpentsagarriak jasotzea, atxikipenak kanpoko araudiaren arabera kalkulatzeko edo ordainketa Euskal Herritik kanpo egitea, peonadak edo egunsariak jasotzea, harrapakinetan parte hartzea, eta ordainsari aldakorrek atxikipen portzentajea kalkulatzeko kontuan hartutakoak baino handiagoak izatea.

1.2 Nork ez du aitortu behar?

Zergadunek ez dute aitortpena egin behar lortu dituzten errentak honako hauek bakarrik direnean:

- **20.000,00 eurotik beherako lan etekin gordinak urtean** (soldatak, pentsioak...), banaka aitortzen bada. Familia unitateko kideek batera aitortzen badute, muga hori etekin mota hau lortzen duen zergadun bakoitzarentzat aplikatuko da.
- **Kapitalaren etekin gordinak** (ondasun higiezin errentamendua, akzioen dibidenduak, kontu edo gordailuen interesak,...), eta **ondare irabaziak** (akzioen salmentagatik lortutako irabaziak, zozketa, joko eta abarretik datozen sariak, etab.), salbuetsitakoak barne bi kasutan, batera hartuta **urtean 1.600,00 eurotik** gorakoak ez badira.

ERNE: 20.000,00 eurotik beherako lan etekinak lortu dituzten zergadunek ez dute aitortpena aurkezteko obligaziorik. Hala ere, aitortpena aurkeztera behartuta egongo dira baldin eta, etxea saltzeagatik, kontu korranteetako interesak jasotzeagatik, akzioak saltzeagatik, etab. lortu dituzten urteko errentak 1.600,00 eurokoak baino handiagoak badira.

Nolanahi dela ere, zergadunek banaka jasotzen dituzten urteko lan etekin gordinak 12.000,00 eta 20.000,00 euro bitartekoak badira, **aitortpena aurkeztu beharko dute** hurrengo egoera hauetako batean daudenean:

2013. urtean zehar ordaintzaile batengandik baino gehiagorengandik lan etekinak jaso dituztenean edo, ordaintzaile beregandik jaso arren, honek atxikipena egiteko garaian etekinak metatu ez dituztenean kontzeptu berdinen edo desberdinen ondorioz ordainduak izateagatik, eta, orobat, 2013. urtean lan kontratu bat baino gehiago sinatu dutenean, kontratu hori laborala, administratiboa zein beste edozein motatakoa izan.
- Kontratuan aurreikusitako epea behin amaiturik, enplegu emaile berberentzat lanean jarraitu dutenean edo 2013. urtean zehar berriro lanean hasi direnean, eta halaber, beren lan kontratua edo harreman laboral, administratibo edo beste edozein motatakoa luzatu dutenean.
- Epaileen aginduz, ezkontidearengandik edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturitako izatezko bikote-lagunarengandik pentsio konpentsagarriak edo urteko mantenturako ordainketak jaso dituztenean. Gurasoengandik urteko mantenturako jasotakoak ez dira sartzen.
- Lana dela-eta jasan dituzten atxikipenak edo konturako sarrerak foru erakundeek onartu ez duten araudi baten arabera kalkulatu direnean edo Euskal Herriko Foru Aldundiren bati ordaindu ez zaizkionean.
- Ordainsariak peonadaka edo egunsarika jaso dituztenean.
- Arrantzontzietako langileen kasuan, jaso dituzten ordainsariak, osorik edo zati batean, lortutako arrantzaren balioaren partaidetza bat direnean.
- Emaitzen edo antzeko parametroen arabera ordainsari aldakorrek jaso dituztenean, beti ere ordainsari horiek atxikipen portzentajea edo konturako sarrera kalkulatzeko kontuan hartu direnak baino handiagoak badira.
- Salbuespen, hobari, murrizketa, kenkari edo beste edozein zerga onuraz gozatzeko ezarrita dauden baldintza, epe edo zirkunstantzietako bat bete ez dutenean, baldin eta horrek berekin badakar Zerga Administrazioari

zirkunstantzia horren berri ematea edo erregularizazio edo diru sarreraren bat egin behar izatea.

Urtean 12.000,00 eta 20.000,00 euro bitarteko lan etekin gordinak jasotzeagatik eta a)tik g)ra arteko kasuetako batean egozteagatik aitortpena aurkeztera behartuta dauden zergadunek aitortpen orokorra edo 1.15 apartatuan azaltzen den hautazko likidazioa aurkeztu ahal izango dute.

LABURPENA: urteko lan etekin gordinak (soldatak, pentsioak,...), zergari lotuak eta salbetsi gabeak, **12.000,00** euroko kopurura iristen ez direnean, eta kapitalaren etekin gordinak eta ondare irabaziak 1.600,00 eurokoak baino txikiagoak direnean, zergadunek ez dute aitortzeko obligaziorik izango. Urtean **12.000,00** eta **20.000,00** euro bitarteko lan etekin gordinak jasotzen dituztenak ere ez daude aitortzera behartuta baldin eta erregelamenduz arautu diren egoera jakin batzuetan ez badaude (errentek atxikipenik izan ez dutenean edo, atxikipena eduki arren, atxikipen tasa bat ez datorrenean ordaindu behar den zergaren kuotarekin) eta kapitalaren etekin gordinak eta ondare irabaziak, salbuetsitakoak barne bi kasutan, 1.600,00 eurotik beherakoak badira. Dena den, atxiki edo kontura sartu diren zenbatekoak berreskuratu nahi dituzten zergadunek aitortpena aurkez dezakete, horretara behartuta egon gabe ere.

1.3 Nork aitortu behar du?

2013. urtean beren **ohiko egoitza**¹ **Gipuzkoan izan duten zergadunek** aurkeztu behar dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena, beti ere zerga honi lotutako errentak lortu dituztenean.

Familia unitateko kideek² **lurralde desberdinetan dutenean beren ohiko egoitza**, eta batera aitortzea³ aukeratzeko badute, Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztuko dute aitortpena baldin eta familia unitatean oinarri likidagarriak handiena duen kideak Gipuzkoan badu bere ohiko egoitza, zerga indibidualizatzeko arauari jarraiki.

Bestalde, **badira zergadun batzuk aitortzeko obligazioa dutenak beren ohiko egoitza Gipuzkoan egon ez arren**. Hala gertatzen da, esate baterako, nazionalitate espainiarra duten pertsonekin, legez bananduta ez dagoen ezkontidearekin edo bere adingabeko seme-alabekin, Gipuzkoako zerga araudiari lotuta egon ondoren beren ohiko egoitza atzerriara aldatu dutenean. Honako hauek dira:

- Espainiako misio diplomatikoetako kideak: misio burua nahiz pertsonal diplomatiko, administratibo, tekniko edo zerbitzuetakoa.
- Espainiako bulego kontsularretako kideak: bulego buruak, eta atxikitako zerbitzuetako funtzionarioak eta pertsonala. Hala ere, ohorezko kontsulordeak, ohorezko kontsulatu-agentek edo horien menpeko langileak ez daude aitortzera behartuta.
- Espainiako Estatuko kargu edo enplegu ofizialen titularrak, nazioarteko erakundeen aurrean delegazio eta ordezkaritza iraunkorra dutenean, edo atzerriko delegazio edo begirale eginkizunetako parte direnean.
- Aktiboan dauden funtzionarioak, atzerriko kargu edo enplegu ofizial bat betetzen dutenean izaera diplomatiko edo kontsularrik izan gabe.

1 Ikus kapitulu honen barruan ageri den 1.4. apartatua, ohiko egoitzari buruzkoa.

2 Ikus kapitulu honen barruan ageri den 1.5. apartatua, familia unitatea zer den definitzen duena.

3 Ikus kapitulu honen barruan ageri den 1.8. apartatua. Bertan bi tributazio mota azaltzen dira, banakakoa eta baterakoa.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarentzat lan egiten duten funtzionarioak edo pertsonal laboralak, Euskal Herriak atzerrian dituen bulegoetara bidali direnean.

Alabaina, aipatu diren kasuetan **bi salbuespen** daude. Horrela, ez daude aitortzerik behartuta:

- Aktiboan dauden funtzionario publiko ez direnak edo kargu edo enplegu ofizialen titular ez direnak, lehen adierazitako izaera bereganatu baino lehenagotik dutenean atzerrian ohiko egoitza.
- Legez bananduta ez dauden ezkontideak edo beren adingabeko seme-alabak, baldin eta ezkontideetako batek –ama zein aita izan- aipatu izaera bereganatu baino lehen hartu badute atzerrian ohiko egoitza.

Espainiak izenpetu dituen nazioarteko itunen arau bereziak aplikagarriak ez direnean, lehen aipatu diren arrazoien ondorioz ohiko egoitza Gipuzkoan duten atzerritarrek –eta berdin atzerrian bizi diren gipuzkoarrek- ez dute aitortzerik aurkeztu beharko.

1.4 Zer da ohiko egoitza?

Lurralde espainiarrean bizi den zergadun batek ohiko egoitza Gipuzkoan duela ulertzen da ondorengo irizpideak aplikatuta:

- **Egonaldiaren irizpidea:** zergaldiko egun gehienak Euskal Herrian ematen dituenegun, egun gehiago igaroz Gipuzkoako Lurralde Historikoan Euskal Herriko beste bi lurralde historikoetako bakoitzean baino.

Eman dezagun, adibidez, pertsona fisiko batek 2013. urtean zehar 5 hilabete igaro dituela Madrilen (151 egun), 4 hilabete Donostian (122 egun), eta 3 hilabete Bilbon (92 egun). Madrilen egun gehiago eman baditu ere (151), Euskal Herrian igaro dituenak batzen baditugu (214), zergadun honi Euskal Herriko araudia aplikatu behar zaiola konturatzeko gara. Baina denbora gehiago egon denez Gipuzkoan beste lurraldean baino (122 egun Gipuzkoan eta 92 Bizkaian), zergadun horren egoitza fiskala Donostian izango da eta, beraz, Gipuzkoako Foru Aldundian ordaindu beharko du zerga.

- **Interes gune nagusiaren irizpidea:** bere interesen gune nagusia Gipuzkoan dagoenean, hau da, zergaren zerga oinarri gehiena lurralde horretan lortu duenean. Zerga oinarriaren osagaiak honako hauek izango dira:
 - Lanaren etekinak.
 - Kapital higiezinaren etekinak.
 - Ondasun higiezinetatik eratorritako ondare irabaziak.
 - Jarduera ekonomikoaren etekinak.

Eman dezagun, adibidez, 2013. urtean zergadun batek 151 egun pasa dituela Madrilen, 107 egun Gipuzkoan, eta beste 107 egun Bizkaian. Kasu honetan, lehen irizpidea (egonaldia) ez da nahikoa bere ohiko egoitza kokatzeko; jakin badakigu, ordea, egoitza hori Euskal Herrian dagoela. Zein foru ogasunetan tributatu behar duen jakiteko, bere interesen gune nagusia Gipuzkoan edo Bizkaian dagoen begiratu behar dugu.

- **Azken egoitzaren irizpidea:** zerga honen ondorioetarako aitortutako azken egoitza Gipuzkoan dagoenean.

Lehen irizpidearekin ezin bada zehaztu ohiko egoitza foru edo estatuko lurraldean dagoen, bigarren irizpidea aplikatuko da. Eta lehen eta bigarren irizpideekin ezin bada zehaztu ohiko egoitza foru edo estatuko lurraldean dagoen, orduan hirugarrena aplikatuko da.

Bi kasu aurreikusi dira **ohiko egoitzaren presuntzioarako**. Bi lotura mota hartzen dira oinarri: lotura ekonomikoa eta familia lotura.

Lotura ekonomikoa

Zergadun batek ohiko egoitza Euskal Herrian duela irizpide ekonomikorekin arabera zehazteko hiru baldintza hauek bete behar dira:

- Lurralde espainiarrean bizitzea.
- Urte naturalean zehar 183 egun baino gehiago ematea lurralde espainiarretik kanpo.
- Bere jarduera enpresarial edo profesionalen edo interes ekonomikoaren gune nagusia Euskal Herrian egotea.

Era berean, pertsona fisiko bat Gipuzkoan bizi dela ulertuko da bere jarduera enpresarial edo profesionalen edo interes ekonomikoaren gune nagusia lurralde horretan dagoenean.

Familia lotura

Pertsona fisiko bat lurralde espainiarrean bizi dela uste bada, bere ohiko egoitza Gipuzkoako Lurralde Historikoan izango du legez banandu gabeko ezkontidea eta haren menpe dauden adingabeko seme-alabak Gipuzkoan bizi direnean. Presuntzio honek kontrako frogara onartzen du.

Ohiko egoitza aldatzen denean, honako irizpideak hartuko dira kontuan:

- Gipuzkoan bizi diren zergadunek beste lurralde batera (foru edo estatuko lurraldera) aldatzen badute beren ohiko egoitza, edo beste lurralde batean bizi direnek (foru edo estatukoan) Gipuzkoara aldatzen badute, egoitza berriari dagokion tokian beteko dituzte zerga obligazioak, beti ere egoitza berria konexio puntu denean.
- Aitorpenean gutxiago ordaintzeko asmoz egiten diren egoitza aldaketek ez dute eraginik sortzen, salbu eta zergaduna gutxienez hiru urtez bizi bada etenik gabe egoitza berria.

Beraz, baldintza hori betetzen ez den guztietan (hau da, ez badago gutxienez hiru urteko egonaldia etenik gabe), **egoitza aldaketarik ez dela izan** ulertuko da honako zirkunstantziak ematen direnean:

- Egoitza aldatu den urteko zerga oinarria edo hurrengo urteko aldaketa egin aurreko urteko oinarria baino gutxienez %50 handiagoa denean.

Familia unitate batean sartuta dauden pertsona fisikoen tributatzeko era desberdinak aukeratu badituzte urte horietan (banaka edo baterakoa), tributazio era berdina hartuko da oinarriak aldatzeko, eta, hala badagokio, behar diren indibidualizazio arauak aplikatuko dira.

- Egoitza aldatu den urtean ordaintzen dena aurreko egoitzaren lurraldean aplikagarri zen araudiaren arabera ordainduko zena baino gutxiago denean.
- Ohiko egoitza lehengo lurraldera berriro aldatzen denean.

Egoitza aldaketarik ez dela izan uste bada, zergadunek ohiko egoitzaren Zerga Administrazioari aurkeztuko dizkiote beren aitortzenak, eta kasu horretan berandutza interesak ordainduko dituzte.

Halaber, egoitza fiskal berria **paradisu fiskal** bezala kalifikatuta dagoen herrialde edo lurralde batean frogatzea **ez da egoitza aldaketa izango**. Hau da, nazionalitate espainiarra duten pertsona fisikoen, Gipuzkoako zerga araudiari lotuta egon ondoren, egoitza fiskal berria paradisua fiskal horietako

batean dutela frogatzen dutenean, **zerga honen zergadunak izango dira**. Erregela hori egoitza aldatzen den zergaldian eta hurrengo lauetan aplikatuko da.

1.5 Zer da familia unitatea?

Familia unitatea zeintzuk osatzen duten jakiteko, aitortzen den urteko **abenduaren 31n** familiak duen egoera zein den hartu behar da kontuan.

Familia unitatea bi motatakoa izan daiteke bakarrik:

- **Legez bananduta ez dauden ezkontideek, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteko kideek**, eta baleude, **adingabeko seme-alabek edota judizialki ezgaiak diren seme-alaba adindunek**, gurasoen aginte luzatu edo birgaitupean daudenean, osatzen dutena.

ERNE: adingabeko seme-alabak gurasoen baimenaz euren-gandik aparte bizi direnean hortik kanpo geratzen dira.

- Ezkontideak **legez banandu direnean, ezkontzalatuturirik ez dagoenean nahiz maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoterik sortu ez denean, bai eta horretarako epaileak emandako ebazpena dagoenean ere**, familia unitatea gurasoetako batek eta aurreko apartatuan aipaturiko baldintzak betetzen dituzten seme-alabek osatuko dute, norekin bizi diren alde batera utzita. Beste ezkontidea, halakorik bada, ez da familia unitateko kide izango.

Familia unitatea osatzeko, seme-alaba guztiak gurasoetako bati bakarrik egotziko zaizkio, bien arteko akordioz.

Akordiorik ez badago, epailearen erabakiz seme-alaben ardura osoa bere gain duen gurasoak osatuko du familia unitatea seme-alaba guztiekin batera. Kasu horretan, bi familia unitate egon daitezke, eta horietako bakoitza gurasoak eta judizialki berari bakarrik egotzi zaizkion seme-alabek osatuko dute. Hori gertatzen denean, familia unitatea osatzeko, beharrezkoa izango da seme-alabaren baten ardura epaileek ematea.

ERNE: inork ezingo du aldi berean bi familia unitateko kide izan.

1.6 Zer aitortu behar da?

Ondoko hauek aitortu behar dira:

- Lanaren etekinak (soldatak, pentsioak, etab.).
- Kapitalaren etekinak (kapital higikor zein higiezinarenak).
- Jarduera ekonomikoen etekinak.
- Ondare irabazi eta galerak.
- Zergaren foru arauan ezartzen diren errenta egozpenak.

1.7 Zer ez da aitortu behar?

Jarraian adierazten diren errentak salbuetsita daude Zergatik 2013ko ekitaldian eta, beraz, ez dira aitortu behar:

1. **Terrorismo ekintzengatik** jasotzen diren **prestazio publikoak**.
2. Gizarte Segurantzak edo honen ordezkio entitateek **erabateko ezintasun iraunkorragatik edo baliaezin-**

tasun handiagatik onartutako prestazioak, eta 55 urtetik gorako pertsonen ezintasun iraunkor osoagatik jasotakoak.

ERNE: 55 urtetik gorako ezintasun iraunkor osoagatik jasotako prestazioen kasuan, prestazio horiek ez daude salbuetsita zergadunek jarduera ekonomikoen etekinak izan dituztenean edo Gizarte Segurantzatik, pentsio planetatik, aseguratutako aurreikuspen planetatik, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetatik, edo aseguru kolektiboetatik datozen pentsio eta prestazioak ez diren bestelako lan etekinak jaso dituztenean. Ondorio horietarako, lehendik emandako zerbitzuengatik jasotako diruzko edo gauza bidezko ordainsari sinbolikoak ez dira lan etekintzat hartuko, urteko zenbatekoa 600 eurotik gorakoa ez bada. Dena den, prestazioak aldira jasotzen direnean, baliaezintasunagatik jasotakoak beti daude salbuetsita jasotzen diren lehen zergaldian.

Puntu honetan sartzen dira, baita ere, aurreko paragrafoan aipatutakoak bezalako egoerengatik jasotzen diren prestazioak, onuradunak hauek direnean:

- Norbere konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzaren erregimen berezian sartuta ez dauden profesionalak, Gizarte Segurantzaren erregimen bereziaren ordezkio gisa jarduten diren gizarte aurreikuspeneko mutualitateek onartutako prestazioak direnean.
- Kooperatibetako bazkideak, prestazioak borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateek onartutako direnean.

ERNE: kontuan eduki behar da kontzeptu honengatik aitortu behar ez den kopuruak ezin duela inoiz gainditu norbere konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzaren erregimen berezian sartuta ez dauden profesionalak edo bazkide kooperatibistek jasoko luketena pentsioa Gizarte Segurantzak ordainduko balie. Soberakinak lan etekin moduan tributatu du, eta prestazioak Gizarte Segurantzatik eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko mutualitate edo entitateetatik jaso direnean, soberakina azken horien prestazioetan gertatu dela ulertuko da.

Era berean, salbuetsita daude zahartasun eta elbarritasunari buruzko derrigorrezko aseguruaren pentsioak (**SOVI** delakoarenak), euren zergatia zergadunaren elbarritasuna denean.

3. **Klase pasiboan erregimenean ezgaitasun edo ezintasun iraunkorragatik jasotako pentsioak**, baldin eta haien arrazoia izan den lesio edo gaixotasunak pentsioaren jasotzailea erabat ezgaitu badu edozein lanbidetan jarduteko, edo, bestela, baldin eta zergaduna 55 urtetik gorakoa izanik lesioak edozein lanbidetan jarduteko gaitu ez badu.

ERNE: Pentsio horiek 55 urtetik gorako pertsonen jasotzen badituzte, ez daude salbuetsita zergadunek jarduera ekonomikoen etekinak izan dituztenean edo Gizarte Segurantzatik, pentsio planetatik, aseguratutako aurreikuspen planetatik, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetatik, edo aseguru kolektiboetatik datozen pentsio eta prestazioak ez diren bestelako lan etekinak jaso dituztenean. Ondorio horietarako, lehendik emandako zerbitzuengatik jasotako diruzko edo gauza bidezko ordainsari sinbolikoak ez dira lan etekintzat hartuko, urteko zenbatekoa 600 eurotik gorakoa ez bada. Dena den, prestazioak aldira jasotzen direnean, baliaezintasunagatik jasotakoak beti daude salbuetsita jasotzen diren lehen zergaldian.

4. Langilea kaleratu edo lana uzteagatik jasotzen diren kalte-ordainak, Langileen Estatutuan, bere erregelamenduzko araudian nahiz, hala badagokio, sententziak betearazteko araudi erregulatzailan derri-gorrezko izaeraz ezarritako kopuruetaraino.

Ondorio horietarako, hurrengo hauek ez dira derrigorrezko izaeraz ezarritakotzat jotzen eta, beraz, Zergari lotuta daude eta oso-osorik aitortu beharko dira:

- Hitzarmen, itun edo kontratuen indarrez ezarritako kalte-ordainak.
- Oro har, lan kontratua amaitzeagatik jasotzen diren kalte-ordainak, baldin eta kontratua amaituzat emateko aintzat hartu den zergatirako ez bada ez langileen estatutuan eta ez berau garatzen duten arauetan kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik. Kasu horien artean ondoko hauek aipa daitezke:
 - Aldi baterako lan kontratuak amaitzea, epea bukatu zaielako.
 - Bidezkotzat jotzen diren kaleratze diziplinarioak.
 - Langileak bere borondatez lana uztea, horren zergatia Langileen Estatutuak 41. eta 50. artikuluetan aipatzen dituen artean ez badago.

Esan dugun bezala, langilea kaleratu edo lana uzteagatik jasotzen diren kalte-ordainak ez dira aitortu behar Langileen Estatutuan ezarritako mugak gainditzen ez dituztenean. Honako hauek dira, besteak beste:

- Bidegabeko kaleratzeagatik jasotako kalte-ordainak: jasotako kalte-ordainak salbuetsiko dira lan egindako urte bakoitzeko 33 eguneko soldata gainditzen ez duen kopururaino, 24 hileko gehienez.

Dena den, 2012ko otsailaren 12a baino lehen formalizatutako kontratuen kasuan, bidegabeko kaleratzea deklaratzeko bada, hau izango da kalte-ordaina: 45 eguneko soldata data hori baino lehen lanean emandako urte bakoitzeko, eta 33 eguneko soldata data horretatik aurrera lan egindako urte bakoitzeko. Kalte-ordainaren zenbatekoa ezin da 24 hilekoa baino handiagoa izan, non eta 2012ko otsailaren 12a baino lehenagoko aldiari dagokion kalte-ordaina kalkulatzeko ez diren 24 hileko baino gehiago ateratzen; kasu horretan 45 egun baino ez dira konputatuko, eta kalte-ordainaren zenbatekoa ezingo da izan 42 hilekoa baino handiagoa.

Kontratazio mugagabea sustatzeko kontratuen kasuan, horiek abenduaren 17ko 35/2010 Legearen babesean egindakoak direnean, bidegabeko kaleratzeagatik jasotako kalte-ordainetik 33 eguneko soldata salbuetsiko da lan egindako urte bakoitzeko, 24 hileko gehienez.

Lan egindako urteak kalkulatzeko, urtebetera iristen ez diren epealdiak hilabeteka hainbanatuko dira.

Lan kontratua adiskidetze egintzaren aurretik amaitzen bada, kaleratzeagatik jasotzen diren kalte-ordaina kaleratzea bidegabekotzat jo izan balitz jasoko zen kopururaino salbuetsiko da, baina beti ere kontratuaren amaiera baja hobarrituen plan edo sistema kolektiboan barruan adostu ez bada.

- Langileak lana bere borondatez uzteagatik jasotako kalte-ordainak: lan egindako urte bakoitzeko 33 eguneko soldatari dagokion kalte-ordaina salbuetsiko da, 24 hileko gehienez (2012ko otsailaren 12ra arte 45 egun konputatuko dira, eta gehienez 42 hileko), betiere arrazoi hauetako batengatik utzi bada lana:

- Lan baldintzak nabarmen aldatu direlako eta langilearen prestakuntza profesionala edo duintasuna kaltezen direlako.

- Hitzarturiko soldata ordaintzen ez zaielako edo ordainketa eten gabe atzeratzen delako.

- Enpresariak kontratuan finkatua duen beste edozein obligazio betetzen ez duelako, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Lana uzten bada lan baldintzak nabarmen aldatu direlako baina langilearen prestakuntza profesionala edo duintasuna kaltetu gabe (txandakako lanaldi, ordutegi eta lan erregimena), jasotzen diren kalte-ordainak ez dira aitorpenean sartuko beren zenbatekoak 20 eguneko soldata gainditzen ez duenean lan egindako urte bakoitzeko, gehienezko muga 9 hilekoa delarik.

Lan egindako urteak kalkulatzeko, urtebetera iristen ez diren epealdiak hilabeteka hainbanatuko dira.

- Enpresariaren heriotza, erretiro edo ezintasunagatik lana utzi behar izan denean jasotako kalte-ordainak: hilabeteko soldata.

- Kaleratze kolektiboagatik jasotako kalte-ordainak: Langileen Estatutuaren arabera, kaleratze kolektiboaren kasuan, kalte-ordaina 20 eguneko soldatoko izango da lan egindako urte bakoitzeko, 12 hileko gehienez. Hala ere, kaleratzea enplegua erregulatzeko espedienteen ondorioz gertatu denean -Langileen Estatutuaren 51. artikuluan arabera tramitatutako espedienteengatik eta agintari eskudunak alde aurretik onartuta, edo haren arrazoiak aipatutako Estatutuaren 52.c) artikuluan aurreikusitakoak badira, betiere bai kasu batean bai bestean arrazoiak ekonomikoak, teknikoak, antolaketakoak, produkziokoak edo halabeharrezkoak badira, jasotako kalte-ordaina salbuetsita geratuko da Estatutu horretan bidegabeko kaleratzeetarako zehaztutako nahitaezko mugak gainditzen ez dituen zatian.

Administrazio publikoek prestatzen dituzten giza baliabideen plan estrategikoek enplegua murrizteko espedienteen helburu berberak dituztenean, hauen tratamendu bera izango dute.

Lan egindako urteak kalkulatzeko, urtebetera iristen ez diren epealdiak hilabeteka hainbanatuko dira

- Arrazoi objektiboetan oinarritutako kaleratzeagatik jasotako kalte-ordainak: lan egindako urte bakoitzeko 20 eguneko soldata gainditzen ez duen kopururaino salbuetsiko da kalte-ordaina, gehienez 12 hileko.

Kaleratzea Langileen Estatutuko 52.c) artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik gertatu bada -arrazoi ekonomikoengatik, teknikoengatik, halabeharrezkoengatik, antolakuntzakoengatik edo produkzio arlokoengatik-, jasotako kalte-ordaina salbuetsita geratuko da Estatu horretan bidegabeko kaleratzeetarako ezarritako nahitaezko mugak gainditzen ez dituen zatian.

Lan egindako urteak kalkulatzeko, urtebetera iristen ez diren epealdiak hilabeteka hainbanatuko dira

Ekainaren 24ko 4/1993 Legeak, Euskadiko Kooperatibei buruzkoak, 103.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioz, kooperatiba bateko bazkideek kooperatiba horretan baja hartzeagatik jaso ditzaketen kalte-ordainak ez dira aitorpenean sartuko beren zenbatekoak ez badu gainditzen Langileen Estatutuak 52.c) artikuluan aipatzen dituen uzte kasuetarako lan araudiak derrigorrezko izaeraz ezartzen duen kopurua.

Langileak enpresarekiko lotura guztiak benetan eta efektiboki galtzen ez baditu, derrigorrez aitortu beharko ditu kalte-ordain horiek. Kontrakoa frogatzen ez den bitartean, lotura mantentzen dela ulertuko da baldin eta:

- Enpresak langilea berriro kontratatzen badu kaleratua izan edo lana utzi ondorengo hiru urteetan, datatik datara kontatuak.
 - Langilea enpresa berberak edo Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 16. artikuluan dioenaren arabera hari lotuta dagoen beste batek kontratatzen badu. Lotura hori bazkidearen eta sozietatearen arteko harremanak definitzen duenean, beharrezkoa da partaidetza %25ekoa edo handiagoa izatea, edo bestela, %5ekoa edo handiagoa izatea, balore horiek Europako Parlamentuaren eta bertako Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauak, finantza tresnen merkaturerako buruzkoak, III. tituluan aipatzen dituen balore merkaturerako ofizialeko batean negoziatzeko onartu direnean.
5. Era berean, ez dira aitortu beharko **pertsonei eragindako kalte fisiko, psikiko edo moralengatik ematen diren erantzukizun zibileko kalte-ordainak**, legez edo juridikoki onartzen den zenbatekoan.
 6. **Pertsonen kalte fisiko, psikiko edo moralak eragiteagatik aseguru kontratuetatik jasotzen diren diru kopuruak, 150.000,00 euroaraino.** Lesioak prestazioaren jasotzailea ezgaitzen badu edozein lanbide edo jardueratan aritzeko, kopuru hori **200.000,00** eurokoa izango da, eta gainera, jasotzaileak beste pertsona baten laguntza behar badu eguneroko eginbehar oinarritzakoetarako, orduan **300.000,00** eurokoa izango da muga.
 7. **Zenbait sari literario, zientifiko eta artistiko, nahiz giza eskubideen defentsa eta sustapenari lotutakoak**, Zerga Administrazioak zerga ordaintzetik salbuetsi dituen.
 8. **Beka publikoak eta irabazi asmorik gabeko entitateek emandakoak**, betiere entitate horiei irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarri buruzko foru arauan⁴ ezarritako erregimen berezia aplikagarri bazaie eta honako honetarako jaso badira:
 - **ikasketak egiteko**, dela Espainian dela atzerrian, hezkuntza sistemaren maila eta gradu guztietan, unibertsitateko hirugarren zikloraino (doktoretza).
 - **ikerketak egiteko**,
 - **urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuak**, ikertzaile bekadunaren Estatutua onartzen duenak, definitzen duen alorrean.
 - **herri administrazioetako funtzionario eta gainerako langileak jasotzen dituztenean.**
 - **unibertsitateetako irakasle eta ikertzaileak jasotzen dituztenean.**
 9. **Pertsona minusbaliatuak, 65 urtetik gorakoak edo adingabeak etxean hartzeko, herri erakundeetatik jasotako zenbatekoak.**
 10. **1936-1939 bitarteko gerra zibilean zauriak edo mutilazioak jasan zituztenen alde onartutako pentsioak**, dela Estatuko Klase Pasiboen erregimenaren bitartez, dela berriaz egindako legeriaren babesean.

11. **Ekainaren 20ko 1/1994 Errege Dekretu Legegileak, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onartzekoak, II. titularen IX. kapituluaren kargupeko seme-alabengatik ematen dituen familia laguntzak, eta Gizarte Segurantzaren eta klase pasiboen erregimen publikoetatik jasotzen diren zurtasun pentsioak eta hartzeko pasiboak nahiz hogeita bi urtetik beherako biloben eta anai-arreben alde edo lan orotarako ezgaitutakoaren alde onartutakoak.**

Puntu honetan sartzen dira, baita ere, aurreko paragrafoan aipatutakoak bezalako egoerengatik jasotzen diren prestazioak, onuradunak hauek direnean:

- Norbere konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzaren erregimen berezian sartuta ez dauden profesionalak, Gizarte Segurantzaren erregimen bereziaren ordezkotako gisa jarduten diren gizarte aurreikuspeneko mutualitateek onartutako prestazioak direnean.
- Kooperatibetako bazkideak, prestazioak borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateek onartutakoak direnean.

ERNE: kontuan eduki behar da kontzeptu honengatik aitortu behar ez den kopuruak ezin duela inoiz gainditu norbere konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzaren erregimen berezian sartuta ez dauden profesionalak edo bazkide kooperatibistek jasoko luketena pentsioa Gizarte Segurantzak ordainduko balie. Soberakinak lan etekin moduan tributatu du, eta prestazioak Gizarte Segurantzatik eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko mutualitate edo entitateetatik jaso direnean, soberakina azken horien prestazioetan gertatu dela ulertuko da.

Salbuetsita daude, baita ere, **jaiotzagatik, erditze anitzagatik, adopzioagatik, adopzio anitzagatik, kargupeko seme-alabengatik eta zurtasunagatik jasotzen diren gainerako prestazio publikoak.**

Amatasuna dela eta autonomia erkidegoetatik edo toki erakundeetatik jasotzen diren prestazio publikoak ere salbuetsita daude.

12. Dena delako entitate kudeatzaileak onartutako **langu-bezi prestazioak**, ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuak ezarritako **ordainketa bakarrean** jasotzen direnean.

Beharkizunak:

- Jasotako kopuruak esandako errege dekretuak ezarritako helburuetara bideratzea eta bertan aipatzen diren kasuetan ematea.
 - Akzioari edo partaidetzari 5 urtez eustea, onuraduna sozietate laboraletan edo lan elkartuko kooperatibetan sarturik badago; edo, bestela, 5 urtez aritzea jardueran, diru kopuruak jarduera hori langile autonomo gisa egiteko erabili badira.
13. Maiatzaren 28ko Errege Lege-Dekretuan eta ekainaren 5eko 14/2002 Legearen 2. artikuluan xedatutakoagatik jasotako **gizarte laguntzak.**
 14. **Goi mailako kirolariei emandako laguntza ekonomikoak**, erakunde eskudunek antolaturiko prestazio programen ondorio direnean. Urteko muga **60.100,00** eurokoa izango da, eta baldintza hauetako bat bete behar dute:
 - Beren onuradunek goi mailako kirolari izaera aitortua edukitzea aplikagarria den legeriaren arabera.

⁴ Ikus II. titulua apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauan, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarri buruzkoan.

- Kirol gaitan eskudun diren erakundeek zuzenean edo zeharka ematea laguntza horiek.

15. **Nazioarteko bake misioak** betetzeagatik edo horietan kalte fisiko edo psikikoak jasateagatik jasotzen diren aparteko haborokinak eta prestazio publikoak. Hemen **nazioarteko giza laguntza misioak** ere sarzen dira.

16. **Atzerrian egindako lanengatik** jasotzen diren lan etekinak, **60.100,00 euroko mugarekin urtean**, honako baldintzak betetzen direnean:

- Lan horiek Espainian egoitzarik ez duen enpresa edo entitate batentzat egin behar dira edo, bestela, atzerrian finkaturik dagoen establezimendu iraunkor batentzat. Bereziki, gertatzen bada lanak hartu behar dituen entitateak lotura bat duela langilea enplegatu duen entitatearekin edo haren zerbitzuak jasotzen dituen enpresarekin, ulertuko da lan horiek entitate ez-egoiliarrentzat egin direla entitate ez-egoiliarri talde barruko zerbitzua eman zaiola uste daitekeenean, Sozietateen gaineko Zergaren araudian jasotakoaren arabera⁵, aipatu zerbitzuak entitate hartzaileari abantaila edo erabilgarritasunen bat dakarkiolako edo ekar diezaiokeelako.
- Lanak egiten diren lurraldean zerga honen antzeko edo pareko zerga bat aplikatzea, eta herrialde edo lurralde hori paradisu fiskaltzat kalifikatuta ez egotea. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da lanak egiten diren herrialde edo lurraldeak nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena sinatua duenean Espainiarekin eta hitzarmen horretan informazioa elkarri trukatzeko klausula jasotzen denean.

Atzerrian egindako lanengatik jasotako ordainsaria kalkulatzeko, langileak atzerrian benetan eman dituen egun kopurua hartuko da kontuan, bai eta atzerrian emandako zerbitzuei dagozkien berariazko ordainsariak ere.

Egun bakoitzean atzerrian egindako lanengatik sortutako etekinak kalkulatzeko, aipatu lanen berariazko ordainsariak alde batera utzita, proportzionalki banatzeko irizpidea erabiliko da urtearen egun kopuru osoa kontuan hartuta.

Atzerrian destinatutako dauden zergadunentzat, salbuespen hori bateraezina da tributaziotik kanpo gertatzen diren soberakinen araubidearekin⁶, zenbatekoa edozein dela ere. Zergadunak salbuespen honen ordez soberakinen araubidea aplikatzea aukera dezake.

Langilea atzerrira aldatzeak bera enplegatu duen enpresak edo entitateak nazioz gairikoa zerbitzu prestazio bat egiteagatik gertatu behar du. Enpresa edo entitate horrek Espainian eduki behar du egoitza.

Salbuespen hau ez zaie mugaldeko langileei aplikatuko.

17. Itsasontzietako tripulanteak beren lan pertsonalagatik lortzen dituzten etekinen %50 ere ez da aitortzen sartuko, baldin eta itsasontzi horiek Kanarietako erregimen ekonomiko eta fiskala aldatzen duen uztailaren 6ko 19/1994 Legeak 75. artikuluan aipatzen dituen **itsasontzi eta itsas enpresetako erregistro berezian inskribatuta** badaude.

18. Errenta positiboak ez dira aitortuko honako hauetatik datozenean:

⁵ Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 16.5 artikulua.

⁶ Araubide hori jasota dago Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuaren 13.A.3.b) artikuluan. Ikus 2. kapituluaren barruan, "Lanaren etekinak" izenekoan, ageri den 2.2.1.3 apartatua.

- **Europako Batasunak nekazaritzari emandako laguntzetatik**, helburua hauexek bada:

- Esne produkzioa behin betiko uztea.
- Mahasti, madari, mertxika edo nektarina produkzioa behin betiko uztea.
- Platanondo, madariondo, sagarondo, mertxikondo eta nektarinondoak erauztea.
- Azukre-erremolatxaren eta azukre-kanaberaren laboreak behin betiko uztea.

- **Europako Batasunak arrantzari emandako laguntzetatik**, helburua hauexek bada:

- Arrantza behin betiko uztea.
- Itsasontzi batek arrantzan ez jarraitzea.
- Itsasontzi bat eskualdatzea, beste herrialde batean sozietate mistoak sortu nahi direlako edo horren ondorioz.

- **Arrantziaren salmentatik**, baldin eta erosleak, saldu denetik urtebeteko epean, hondakin bihurtzen badu ontzia eta arrantza uzteagatik dagokion laguntza jasotzen badu.

- Sute, uholde edo hondoratzeagatik **ondare elementuetan izandako suntsipena konpontzeko laguntza publikoak**.

- **Errepide bidezko garraio jarduera uzteko emandako laguntzetatik**, administrazio eskudunak garraio-lariei ordaindu dizkienean laguntza horiek emateko araudian ezarritako baldintzak betetzeagatik.

- **Abere azienda derrigorrez hiltzeagatik jasotako kalte-ordain publikoetatik**, epidemiak edo gaixotasunak desagertarazteko ematen direnean eta ugalketarako abereei eragiten dietenean.

Hau da, honako errentak ez dira aitortuko:

- Jasotako laguntzen zenbatekoa.
- Arrantzontzia saltzen bada, lortu diren ondare irabaziak. Ondare galerak egon badira, zerga oinarri orokorrean sar daitezke.
- Ondare elementuen suntsipena konpontzeko jasotzen diren laguntzen zenbatekoa elementu horietan eragindako galerak baino txikiagoa denean, diferentzia negatiboa zerga oinarrian sartu ahal izango da. Galerarik ez badago, laguntzen zenbatekoa bakarrik geldituko da aitortpenetik kanpo.

Jasotzen diren laguntza publikoak ez badira zerbaki honetan aipatutakoak, eta haien helburua ondare elementuek sute, uholde, hondorapen edo bestelako arrazoiz naturalengatik jasandako kalteak konpontzea bada, konponketa kostua gainditzen duten zatiagatik sartuko dira zerga oinarrian. Konponketa gastuak, laguntza horren zenbatekoraino, ez dira inoiz ere kengarriak izango eta ez dira hobekuntza gisa konputatuko.

Laguntza publikoak jasotzen badira zergadunaren ohiko etxebizitza edo jarduera ekonomikoaren lokala aldi baterako edo behin betiko utzi beharra konpentsatzeko, eta horiek jasotzeko arrazoiak aurreko berberak badira, laguntza horiek salbuesita egongo dira.

19. **Mendiko finak** ustiatzen dituztenei emandako dirulaguntzak ez dira aitortzen sartuko haien kudeaketarako honako plan hauek jarraitu badira:

- Basoak kudeatzeko plan teknikoak.
- Mendiak antolatzeako planak.

- Plan dasokratikoak.
- Basoberritze planak.

Baldintzak:

- Ustiapenak administrazio eskudunak onartzea.
- Batez besteko produkzioaldia hogeita hamar urtekoa edo handiagoa izatea.

20. Epaimahaiko izangaiek eta epaimahaikide titularrek eta hauen ordezkoeak beren eginkizunak betetzeko jasotako dirulaguntzak.

21. Zerbitzu publikoen funtzionamenduak pertsonengan eragindako kalte fisiko, psikiko edo moralengatik **herri administrazioek emandako kalte-ordainak**, beti ere martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuak, Herri Administrazioen prozedurei buruzko Erregelamendua erantzukizun patrimonialari dagokionez onartzekoak, hala jasotzen baditu.

22. Lurperatze edo ehorzketagatik jasotako prestazioak, izandako gastu guztien zenbatekoraino.

23. Biziarteko errenta aseguruak eratzeko uanean agerian jartzen diren errentak, **aurrezpen sistematikoko banakako planetatik datozenen**.

24 Dibidenduak eta mozkin-partaidetzak. Urteko muga 1.500,00 euro da zergadun bakoitzeko. Familia unitateak batera airtortzen duenean, salbuespenak muga hori bera du (1.500,00 euro), eta kopuru hori ezin da biderkatu familia unitatean dibidenduak jasotzen dituzten kide kopuruarekin.

Salbuespen hau ez zaie aplikatuko inbertsio kolektiboko erakundeek banatutako dibidendu eta mozkin-partaidetzei eta etekinak ordaindu aurreko lehen bi hilabeteetan eskuratutako balore edo partaidetzetatik datozenei, baldin eta data horren ondoren, baina epe berberaren barruan, balore homogeneoak eskualdatu badira. Baloreak edo partaidetzak ez badira negoziagarriak bigarren mailako balore merkatu ofizialetan, epea urtebetekoa izango da.

Era berean, salbuespen hau ez zaio aplikatuko kooperatibek ekarpenak direla-eta bazkideei ordaindutako interesari.

25. Pertsona desgaituek errenta moduan jasotako prestaziotatik eratorritzen diren **lan etekinak**, betiere pertsona desgaituen alde eraturako gizarte aurreikuspeneko sistemetan egindako ekarpenei badagokizkie. Lanbidearteko gutxieneko soldata hiru halako izango da muga.

26. Senitartekoen **zaintzarako eta laguntza pertsonalizaturako ematen diren prestazio ekonomiko publikoak**, betiere autonomia pertsonala sustatzeko eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko legearen ondorio badira.

Era berean, zergatik salbuetsita dago zaintzaile ez-profesionalak autonomia pertsonala sustatzeko eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko Legearen 14. artikulua 4. apartatua inguru familiarreko zaintzetarako jasotako prestazio ekonomikoaren onuraduna den mendeko pertsonari emandako arreta dela-eta jasotzen duen ordainsaria, aipatu onuradunari aitortutako prestazio ekonomikoaren zenbatekoraino gehienez.

Aurreko paragrafoan jasotako salbuespenaren ondorioetarako, mendeko pertsonaren zaintzaile ez-profesionaltzat hartuko da ezkontidea, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikote-laguna, edo odolkidetasun, ezkontza edo ado-

pzio bidezko senidea, hirugarren mailarainokoa, be-
rau barne.

27. **Lurralde mailako herri administrazioek** emandako laguntzak, beren testu arautzaileak honako hauek edo beren ordezkoeak direnean:

- 124/2005 Dekretua, maiatzaren 31koa, garapenaren aldeko lankidetzak eta laguntza fondoaren kargura euskal kooperanteei emandako laguntzei buruzkoa.

- 3/2002 Legea, martxoaren 27koa, ikastolak legez arautu aurretik haietan eskolak eman zituzten pertsonen aitortza eta konpentsazioa ematekoa.

- 255/2006 Dekretua, abenduaren 19koa, seme-alabak dituzten familientzako diru laguntzak arautzen dituena.

- 177/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, lana eta familia bateratzeko neurriei buruzkoa. Nolanahi, haren IV. kapituluaren jasotako laguntzak kanpoan geratzen dira, onuradunak jardura ekonomikoaren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren bidez zehazten dituzten.

- Agindua, 2010eko urriaren 6koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitza erosteko finantza neurriei buruzkoa.

- 51/2005 Foru Dekretua, abuztuaren 2koa, adinekoak Bidasoaldeko eta Oarsoaldeko egoitzetan sartzeko banakako diru laguntzen oinarriak onartzeko.

- 58/1989 Foru Dekretua, abenduaren 5koa, etxez etxeko zerbitzu intentsiboari buruzkoa.

- 33/2004 Foru Dekretua, apirilaren 20koa, egoera zailan dauden haurren babesa, garapen pertsonala eta integrazio soziala errazteko diru laguntzak ematea arautzen duena.

- 35/1999 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, adingabeen babesa, garapen pertsonala eta integrazio soziala errazteko diru laguntzei eta gizarte arriskuan dauden pertsona edo familienei buruzkoa.

- 72/2000 Foru Dekretua, uztailaren 18koa, "Sendian" Programa onartzen duena adineko pertsona desgaituak beren kargura dituzten familiei laguntzeko.

- Agindua, 2006ko abenduaren 29koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitza birgaitzeko finantza neurriei buruzkoa.

- 316/2002 Dekretua, abenduaren 30koa, "Etxebizitza Hutsaren Programa" sustatu eta bultzatzen duena, errentariei dagokienez.

- 22/2010 Foru Agindua, martxoaren 15koa, etorkizuneko kirolariak izendatzeko araudia onartzen duena.

- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurkako babes integralerako neurriak ezartzeko. 27. artikulua.

- 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, diru sarrerak bermatu eta pertsonak gizarteratzeko.

- 89/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, mendekotasun egoeran dauden familia harreraren programa eta hura garatzeko behar diren diru laguntzak arautzen dituena.

- 87/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzako

Etxean programako banakako laguntzak arautzen dituen.

- 88/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, mugikortasun arazo handiak dituztelako garraio publiko arrunta erabili ezin dutenek ordezkotza garraio bide bezala taxia erabil dezaten laguntzak arautzen dituen.
 - 29/2009 Foru Dekretua, uztailearen 28koa, gizarteratze laguntza ekonomikoa onartzen duena.
 - 1472/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, gazteen emantzipazioak oinarritzeko errenta arautzen duena.
 - Ibilgailuen parkea berritzeko onartutako 2000 E eta MOTO E planak, 2000 Euskadi Plana, eta gainerako autonomia erkidegoek helburu horrekin ezartzen dituztenak edo haien ordezkotza direnak.
 - +Euskadi 09 plana, barne hartzen dituen Renove Plani dagokien (leioak, etxetresna elektrikoak, galdarak, energia aurrezpen haundiko turismoak eta altzariak), eta helburu berdina izanik haien ordezkotza direnak.
 - 2012ko azaroaren 24ko Agindua, Kulturako sailburuarena, «Kultura bonoa» garatu eta sustatzeko, edo helburu bera betetze aldera hura ordeztzen dutenak.
 - «aQtiva Plana» edo helburu bera betetze aldera hura ordeztzen dutenak.
 - 31/2012 Foru Dekretua, ekainaren 19koa, Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza ezartzeko
 - Aurrekoen pareko laguntza guztiak, beste lurralde historikoek salbuetsitatzeko dituztenean.
28. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren organo eskudunak baimendutako **behi esnearen erreferentziako kopuruen transferentziak** direla eta agerian jartzen diren errenta positiboak.
29. Amnistiaren urriaren 15eko 46/1977 Legeak jasotako kasuen ondorioz **espetzeetako askatasun gabetzea konpentsatzeko** estatuko edo autonomia erkidegoetako legerian jasota dauden **kalte-ordainak**.
30. Askatasun eta eskubide demokratikoen defentsan eta errebindikazioan heriotza eta ezgaitasuna eragin duten lesioengatik **kalte-ordainak**, Memoria Historikoari buruzko abenduaren 26ko 52/2007 Legean ezarritakoak.
31. **Kuotan kenkaridunak diren dohaintza eta ekarpenetatik** datozen ondare irabaziak eta errenta positiboak, baldin eta irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko Foru Arauan⁷ aipatutako entitateei eginak izan badira.
32. **65 urtetik gorako pertsonen edo**, autonomia pertsonala sustatzeko eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko legearen arabera, **mendekotasun ertaina edo handia duten pertsonen, ohiko etxebizitza saltzeagatik** agerian jartzen diren ondare irabaziak.
33. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga **Euskal Kultur Ondarea eta Espainiako Ondare Historikoa osatzen duten ondasunen bitartez ordain-**

⁷ Ikus 19. artikulua apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauan, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoan.

tzean sortzen diren ondare irabaziak, lege ezarritako baldintzekin.

34. **Ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik** lortzen diren ondare irabaziak, baldin eta eskualdaketan lortu den zenbateko osoa **beste ohiko etxebizitza bat erosteko berrinbertitzen bada**. Lortutako zenbatekoaren zati bat bakarrik berrinbertitzen bada, ondare irabaziarren zati proportzionala ez da aitortu behar.
35. Ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortu eta biktima horiei ordainak ematekoan, aurreikusita dauden konpentsazio ekonomikoak.
36. **Bidai gastuak eta ostalaritza establezimenduetako mantenu eta egonaldi gastu arruntak**, erregelamenduz ezartzen diren mugekin⁸.

Ondoko errentak ez daude zergari lotuta eta, beraz, **ez dago horiek aitortzeko obligaziorik**:

- Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari lotutako errentak.
- Epailen erabakiz, urteko mantenu ordaintzeko gurasoengandik jasotzen diren errentak.
- Abenduaren 7ko 1618/2007 Errege Dekretuak, Elikagaien Ordainketa Bermatzeko Fondoaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoak, Elikagaien Ordainketa Bermatzeko arautzen duen Fondotik jasotako kopuruak.
- Jarduera ekonomikoen garapenari atxikita ez dauden ondare elementuak eskualdatzeagatik sortzen diren ondare irabaziak. 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortu den irabaziaren zatia ez da zergapetuta egongo 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratutako ondare elementuetatik baldin badator⁹.
- Hil diren pertsonen ondarean herentzia baten eskualdaketagatik agerian jartzen diren ondare irabazi edo galerak.
- Zergaduna hiltzeagatik aktibo finantzarioen doako eskualdaketetan agerian jartzen diren kapital higigarriaren etekinak.
- Kapitalaren murrizpenak, betiere haien helburua ekarpenak itzultzea ez bada. Halakorik egonez gero, eragindako baloreen eskuratze balioaren gainean dagoen soberakinak kapital higigarriaren etekin moduan tributatu du¹⁰.
- Enpresak edo partaidetzak kosturik gabe eskualdatzearen ondorioz sortzen diren irabazi edo galerak, Ondarearen gaineko Zergari buruzko foru arauak 4. artikuluan aipatuak¹¹.
- Ondasun banaketaren ezkontza erregimen ekonomikoa edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak, izatezko bikoteei buruzkoak, xedatutakoaren arabera hiztartzutako ondare erregimen ekonomikoa desegitean

⁸ Ikus 2. kapituluaren barruan, "Lanaren etekinak" izenekoan, ageri den 2.2 apartatua. Lokomozio gastuetarako eta mantenu eta egonaldi gastuetarako dietak eta diru ordainketak azaltzen dira bertan.

⁹ Ikus 6.1.2.1 apartatua 6. kapituluaren barruan, "Ondare irabazi eta galerak" izenekoan. Bertan azaltzen da zer gertatzen den kapitala murrizten denean.

¹⁰ Ikus 6.1.2.1 apartatua 6. kapituluaren barruan, "Ondare irabazi eta galerak" izenekoan. Bertan azaltzen da zer gertatzen den kapitala murrizten denean.

¹¹ Ikus 6. kapituluaren barruan, "Ondare irabazi eta galerak" izenekoan, ageri diren 6.1.2.3 eta 6.1.2.4 apartatuak.

egiten diren ondasun edo eskubideen esleipenak, badin eta esleipen horiek legearen aginduz edo epaileen erabakiz gertatzen badira eta horien zioak ezkontideen edo izatezko bikoteko kideen arteko pentsio konpentsagarriarekin zer ikusirik ez badu. Horrek ez du ekarriko, inolaz ere, esleitutako ondasun edo eskubideen balioak eguneratzea.

- 65 urte baino gehiago dituzten pertsona helduek beren ohiko etxebizitza saltzen dutenean lortutako ondare irabaziak. Salbuespen hau salmenta bakarrerako izango da, eta betiere aurreneko 220.000 euroentzat.
- Autonomia pertsonala sustatzeko eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko Legearen 26. artikuluan aipatzen den mendetasun ertain edo handiko egoeran dauden pertsonen ohiko etxebizitza xedatzeagatik lortutako ondare irabaziak, baldin eta zahartzaroak eta mendetasunak dakartzaten diru beharriaz erantzuteko ondare pertsonala osatzen duten ondasunak xedatzeko egintzei buruzko finantza araudiari jarraituz egiten badira.
- Zergadunaren ohiko etxebizitza finantza entitate batek sustatutako prozedura judizial baten barruan eskualdatzeagatik lortutakoak, betiere ohiko etxebizitza hori zergadunaren titularitateko etxebizitza bakarra bada.

1.8 Banaka tributatzea eta batera tributatzea

Bi tributazio mota daude: **banakakoa eta baterakoa**.

1.8.1 Banakako tributazioa

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena banaka aurkezten da oro har.

1.8.2 Baterako tributazioa

Familia unitate batean sartuta dauden pertsona fisikoek edozein zergalditan tributa dezakete batera, beti ere familiako kide guztiak zerga honen zergadunak badira.

Baterako aitortpena aurkeztu ahal izateko, familia unitateko **kide guztiak** modalitate hau aukeratu behar dute. Nahikoa da kideetako batek baterako tributazioaren arauak ez aplikatzea edo banakako aitortpena aurkeztea familia unitateko beste kideek banakako aitortpena aurkeztu behar izan dezaten.

Urtean zehar familia unitateko kideren bat hiltzen bada, familia unitateko gainerako kideek baterako aitortpena aurkeztu ahal izango dute, aitorten horretan hildakoaren errentak sartuz. Gainera, hil den familia unitateko kideak kenkari pertsonal eta familiarretarako eskubidea sortu badu, aitortpenen kenkari horiek ere sartu ahal izango dituzte, beren zenbatekoa egun horretara arte proportzionalki murriztu gabe. Kasu horretan, batera tributatzegatik zilegi den murrizpena urte osoagatik aplikatuko da.

Familia unitatea osatzen duten zergadunek lurralde desberdinetan dutenean beren ohiko egoitza, eta batera aitortzea aukeratzen badute, zerga Gipuzkoako Foru Aldundian ordainduko dute familia unitate horretan oinarri likidagarri handiena duen kideak Gipuzkoan duenean bere ohiko egoitza, zerga indibidualizatzeko arauari jarraiki.

Oinarri likidagarri handiena kalkulatzearen ondorioetarako, bizilekua Gipuzkoan ez duten zergadunei propio dagoen araudia aplikatuko zaie.

Nahiz eta zergadunek aitortpen mota bat aukeratu zergaldi baterako (banakakoa/baterakoa), aukera hori aldatu dezake-

te gero, baina bakar-bakarrik zerga Administrazioak edozein jarduketara egin arte.

Baterako tributazioa aukeratzeak ez du esan nahi hurrengo urteetan beste tributazio mota bat aukeratu ezin daitekeenik eta banaka aitortu.

Zergadunek aitortpena aurkeztu ez badute, **Administrazioak banaka tributatzen dutela ulertuko du**, non eta batera tributatzea aukeratu dutela espreski adierazten ez duten. Horretarako, **hamar eguneko epea** izango dute zerga Administrazioak errekerimendua egiten duenetik aurrera.

Arau bereziak

Baterako tributazioan, zergadunen errentak kalkulatzeko, zerga oinarri eta oinarri likidagarria kalkulatzeko eta zerga zorra kalkulatzeko, banakako tributazioan ezarrita dauden erregela orokorrak aplikatuko dira, jarraian adierazten diren berezitasunekin:

- Baterako tributazioan, banakako tributazioan ezarrita dauden zenbateko eta muga berdina aplikatuko dira, hau da, ezingo dira familia unitateko kide kopuruaren arabera handitu edo biderkatu. Hala ere:
 - Familia unitatean kide batek baino gehiagok jasotzen dituzten lan etekinak, etekin horiei hobera aplikatzeko familia unitatean jaso diren mota honetako etekin guztien batura hartuko da kontuan, ez jasotzaile kopurua.
 - Bateratzen denean, aurrezpenaren zerga oinarriaren saldo negatiboak, ondare galerak eta oinarri likidagarri orokor negatiboak zerga honen erregela orokorren arabera konpentsa ditzakete familia unitateko kide diren zergadunek. Baldintza hau bete behar da: saldo, galera eta oinarri horiek familia unitateko kideek banaka tributatu duten zergaldietan gertatuak izatea eta konpentsatu gabe egotea.

Banakako tributazioa geroago egiten bada, adierazi diren kontzeptu horiek zein zergadunek konpentsa ditzaketen zehazteko, Zergaren araudian errenten indibidualizazioari buruz jasota dauden arauari jarraituko zaie.

Familia unitateko kide bakoitzak –partaide, mutualista, aseguratua edo bazkide izan– indibidualki aplikatuko ditu mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pentsio planei, 2003/41/CE Zuzentarauan erregulatutako pentsio planei, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei, pertsona desgaituen aldeko aurreikuspen sistemei eta kirolari profesionalen mutualitateei ekarpenak egiteagatik zerga oinarrian egin dezakeen murrizpenaren gehienezko mugak. Gainera, zerga oinarriari murrizpenak aplikatzeak ezin duenez oinarri likidagarri orokor negatiborik ekarri, ez eta hura gehitu ere, kontuan hartuko da zenbateko proportzio duen zergadun bakoitzak zerga oinarrian. Aurrezpenaren oinarri likidagarria lortzeko, aurrezpenaren zerga oinarriari pentsio konpentsagarriengatik eta urteko mantenturako ordainketengatik egindako murrizpenaren gerakina kendu behar zaio, halakorik badago. Oinarria ezin da, kenketa horregatik, negatiboa izan.

- Adinaren kenkaria kenkari honetarako exijitzen den adina betetzen duen zergadun bakoitzagatik aplikatuko da.
- Zergadun bakoitzak, 2011ko abenduaren 31 baino lehen ohiko etxebizitza erostegatik zergaldi jarraituetan egindako kenkarien baturak ezin du 36.000,00 euroko zifra gainditu. Hala badagokio, zifra horri gutxituko zaio berrinbertsioagatik salbuetsitako ondare iraba-

ziaren zenbatekoari %18 aplikatuz ateratzen den emaitza. 36.000,00 euroko kopurua zergadun bakoitzeko aplikatuko da. Dena den, ohiko etxebizitza erosteagatik urtean egin daitekeen gehieneko kenkariak ezin du gainditu 2.160,00 euroko kopurua aitorten bakoitzeko. Familia ugarien titularrek edo 35 urtetik beherakoek handiagoa dute muga hori (2.760,00 euro).

- Zergadun bakoitzak, 2011ko abenduaren 31ren ondoren ohiko etxebizitza erosteagatik zergaldi jarraituetan egindako kenkarien baturak ezin du 30.000,00 euroko zifra gainditu. Hala badagokio, zifra horri gutxituko zaio berrinbertsioagatik salbuesitako ondare irabaziaren zenbatekoari %15 aplikatuz ateratzen den emaitza. 30.000,00 euroko kopurua zergadun bakoitzeko aplikatuko da. Dena den, ohiko etxebizitza erosteagatik urtean egin daitekeen gehieneko kenkariak ezin du gainditu 1.500,00 euroko kopurua aitorten bakoitzeko. Familia ugarien titularrek edo 35 urtetik beherakoek handiagoa dute muga hori (2.000,00 euro).
 - Langileen sindikatuari kuotak ordaintzeagatik araututako kenkaria, langileen sindikatuari kuotak ordaintzen dizkien zergadun bakoitzeko aplikatuko da.
- b) Familia unitateko zergadunek baterako tributazioa aukeratu badute, lortu dituzten mota guztietako errentak elkarrekin zergapetuko dira.
- c) Batera tributatzea aukeratzen bada, zerga oinarri orokorrak 4.176,00 euroko murrizpena izango du urtean aitorten bakoitzeko. Familia unitatea gurasoetako batek eta adingabeko seme-alabek edota judizialki ezgaituak diren seme-alaba adindunek, guraso-aginte luzatu edo birgaitupean daudenean, osatzen badute, murrizpen hori 3.628,00 eurokoa izango da ezkontideak legez banandu direnean, ezkontza-loturarik ez dagoenean edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoterik sortu ez denean.
- d) Familia unitateko kideek batera tributatzea aukeratzen badute, elkarrekin eta solidarioki geratuko dira zergari lotuta, eta zerga Administrazioak horietako edozeinengana jo ahal izango du zorra ordain dezan. Dena den, euren artean erabaki dezakete zein zenbateko ordainduko dioten proportzionalki Administrazioari, bakoitzari dagokion errenta zatiaren arabera.
- e) Aitorpena familia unitateko kide adindun guztiek izenpetu eta aurkeztu behar dute. Pertsona horiek adingabekoen ordezkari arituko dira, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 45.1 artikuluan jasotako eran.

ERNE: Batera tributatzea aukeratzen bada, zerga oinarri orokorrak 4.176,00 euroko murrizpena izango du urtean aitorten bakoitzeko 3.628,00 euroko murrizpena izango dute ezkontideak legez banandu direnean, ezkontza-loturarik ez dagoenean edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoterik sortu ez denean.

1.9 Zergaldia eta zergaren sortzapena

Zergaldia

Izaera orokorrean, zergaldia urte naturala da, hau da, **urtarrilaren 1ean hasi eta abenduaren 31n amaitzen da.**

Hala ere, zergaduna abenduaren 31 baino lehen hiltzen bada, zergaldia urtarriaren lehen heriotzaren egunera arte joango da, eta egun horretan izango da zergaren sortzapena.

Urtean zehar familia unitateko kideren bat hiltzen bada, gainerako kideek batera tributatzea aukera dezakete. Aitorten

horretan hildakoaren errentak sartu ditzakete eta, gainera, hil den familia unitateko kideak kenkari pertsonal eta familiarretarako eskubidea sortu badu, aitorpenean kenkari horiek ere sartu ahal izango dituzte, beren zenbatekoa egun horretara arte proportzionalki murriztu gabe. Kasu horretan, batera tributatzeagatik zilegi den murrizpena urte osoagatik aplikatuko da.

Zergaren sortzapena

Izaera orokorrean, zergaren sortzapena urte bakoitzeko **abenduaren 31n** gertatzen da. Urtean zehar familia unitateko kideren bat hiltzen bada eta gainerako kideek hildakoaren errentak sartzen ez badituzte baterako tributazioa aukeratzen ez dutelako, zergaren sortzapena zergaduna hil den egunean gertatzen da.

Adibidea

Eman dezagun zergadun baten ezkontidea 2013ko urriaren 31n hil dela. Zergadunak 10 urteko seme bat du. 2013ko datuak ondorengo hauek dira:

Lana	Zergaduna	Hildako ezkontidea
Sarrera gordinak	37.262,75 €	33.055,67 €
Gizarte Segurantzza	2.253,80 €	1.502,53 €
Atxikipenak	6.467,76 €	6.091,69 €

Gainera, zergadunak lokal bat dauka errentan emana 2013ko abuztuaren 1az geroztik, eta honako kapital higiezin hau lortu du:

Kapital higieztina	Zergaduna	Hildako ezkontidea
Sarrera gordinak	6.000,00 €	
Gastu kengarriak	1.800,00 €	
Atxikipenak	1.260,00 €	

Hiru aukera daude:

1. Familia unitateko kideek banaka aitortzea.
2. Familia unitateko kideek batera aitortzea eta aitorpenean hildakoaren errentak sartzea.
3. Hildakoagatik banakako aitorpena aurkeztea eta familia unitateko gainerako kideek batera aitortzea.

1. Banakako tributazioa

Bi banakako aitorpen aurkezteko: zergadunarena, urte osoagatik aurkeztuko dena, eta ezkontidearena, heriotzaren egunera arte egingo dena (2013/01/01etik 2013/10/31ra arte).

Banakako tributazioa	Zergaduna	Hildako ezkontidea
Lanaren etekin osoak (ikus 2.4)	37.262,75 €	33.055,67 €
- Gizarte Segurantzza (ikus 2.5)	-2.253,80 €	-1.502,53 €
- Hobaria (ikus 2.6)	-3.000,00 €	-3.000,00 €
Lanaren etekin garbia	32.008,95 €	28.553,14 €
Kapital higiezinaren etekin osoa (ikus 3.2)	6.000,00 €	
- Gastu kengarriak (ikus 3.3)	-1.800,00 €	
Kapital higiezinaren etekin garbia	4.200,00 €	
Oinarri likidagarri orokorra (ikus 10.2)	36.216,03 €	28.553,14 €
Kuota osoa (ikus 11)	9.749,03 €	7.225,38 €
Kenkari orokorra (ikus 12.2.1)	-1.375,00 €	-1.375,00 €
Kenkaria ondoren ahaideagatik (ikus 12.3.1)	-289,50 €	-289,50 €

Kuota likidoa (ikus 12)	8.084,53 €	5.560,88 €
- Lanaren atxikipenak eta higiezinarenak	7.727,76 €	6.091,69 €
Kuota diferentziala (ikus 13)	356,77 €	-530,81 €

2. Baterako tributazioa

Bigarren aukera honen arabera, zergadunak semearekin batera egin dezake aitorpena, eta bertan ondoko kontzeptu hauek sartu: ezkontidearen errentak eta, baldin badaude, familia unitatean hil den pertsonagatik aplikatu litezkeen kerkari pertsonal eta familiarrak, beti ere kerkari horien zenbatekoa egun horretara arte proportzionalki murriztu gabe. Batera tributatzegatik zilegi den murrizpena urte osoagatik aplikatu da.

Baterako tributazioa	
Lanaren etekin osoa (37.262,75 € +33.055,67 €) (ikus 2.4)	70.318,42 €
- Gizarte Segurantza (2.253,80 € + 1.502,53 €) (ikus 2.5)	-3.756,33 €
- Hobaria (ikus 2.6)	-3.000,00 €
Lanaren etekin garbia (70.318,42 € - 6.756,33 €) (ikus 2.7)	63.562,09 €
Kapital higiezinaren etekin osoa (ikus 3.2)	6.000,00 €
- Gastu kengarriak (ikus 3.3)	-1.800,00 €
Kapital higiezinaren etekin garbia (6.010,12 € - 1.803,04 €)	4.200,00 €
Zerga Oinarri orokorra (63.562,09 € + 4.207,08 €) (ikus 9)	67.762,09 €
Murrizpena batera tributatzegatik	-4.176,00 €
Oinarri likidagarri orokorra (ikus 10)	63.586,09 €
Kuota osoa (ikus 11)	20.201,84 €
Kerkari orokorra (ikus 12.2.1)	-1.375,00 €
Kerkaria ondoren ahaideagatik (ikus 12.3.1)	-579,00 €
Kuota likidoa (ikus 12)	18.247,84 €
Atxikipenak (6.467,76 € + 6.091,69 € + 1.260,00 €)	13.819,45 €
Kuota diferentziala (ikus 13)	4.428,39 €

3. Bi aitorpen: batean banaka tributatzen da eta bestean batera

Banakako aitorpen bat eta baterako beste bat aurkez daitezke aldi berean: bigarrena semearekin batera egingo da, urte osoagatik; eta lehenengoa, ezkontideari dagokiona, heriotza egunera artekoa izango da (2013/01/01etik 2013/10/31ra arte).

	Zergaduna eta adingabeko semea (baterako tributazioa)	Hildako ezkontidea (banakako tributazioa)
Lanaren etekin osoak (ikus 2.4)	37.262,75 €	33.055,67 €
- Gizarte Segurantza (ikus 2.5)	-2.253,80 €	-1.502,53 €
- Hobaria (ikus 2.6)	-3.000,00 €	-3.000,00 €
Lanaren etekin garbia	32.008,95 €	28.553,14 €
Kapital higiezinaren etekin osoa (ikus 3.2)	6.010,12 €	
- Gastu kengarriak (ikus 3.3)	-1.803,04 €	
Kapital higiezinaren etekin garbia	4.207,08 €	
Zerga Oinarri orokorra (ikus 9)	36.216,03 €	28.553,14 €
Murrizpena batera tributatzegatik	-3.628,00 €	
Oinarri likidagarri orokorra (ikus 10.2)	32.580,95 €	28.553,14 €
Kuota osoa (ikus 11)	8.479,23 €	7.236,88 €

Kerkari orokorra (ikus 12.2.1)	-1.375,00 €	-1.375,00 €
Kerkaria ondoren ahaideagatik (ikus 12.3.1)	-289,50 €	-289,50 €
Kuota likidoa (ikus 12)	6.814,73 €	5.593,38 €
- Lanaren atxikipenak eta higiezinarenak	7.727,76 €	6.091,69 €
Kuota diferentziala (ikus 13)	-913,03 €	530,81 €

1.10 Nola aurkez daitezke aitorpena?

Zergaren aitorpena aurkezteko hiru modalitate daude:

1. Internet bidez.
2. Mekanizatua.
3. Autolikidazio proposamena

1.10.1 Internet bidezko modalitatea

Modalitate honen erabiltzaileak izan daitezke:

- **Zergadunak:** partikularrak eta enpresariak zein profesional autonomoak
- **Ordezkeri profesionalak:** aholkulari eta kudeatzaileak

Prozedura

Hona hemen urteko errenta aitorpena internet bidez aurkezteko urratsak:

1.- Datuak betetzea:

ZERGABIDEA laguntza programa erabili behar da. Gure webgunean bakarrik eskura daitezke. Zergadunek eta ordezkeri profesionalak programa berdina dute.

Bi modutan bete daitezke aitorpenak: datuak zuzenean sartuz edo ZERGA INFORMAZIOA gure webgunetik jaitziz. Programatik bertatik jaitzi daitezke datu fiskalak, edo, lehendabizi ordenagailuan gorde eta, horren ondoren, handik programara inportatu.

Noren datu fiskalak jaitzi daitezke ZERGA INFORMAZIOA ataletik?

- **Zergadunak:** norberaren datuak, edo 001 ereduarekin horretarako baimena eman dieten pertsonenak, pasahitza edo sinadura elektronikoa erabilia.
- **Ordezkeri profesionalak:** 001-P edo 001-RP ereduarekin horretarako baimena eman dieten pertsonen datuak, sinadura elektronikoa erabilia.

2.- Transmittzea:

- **Zergadunak:** kontraste datu bat sartuz (aurreko urteetako errenta aitorpen baten kuotaren zenbatekoa), edo pasahitz operatiboa zein sinadura elektronikoa erabiliz.
- **Ordezkeri profesionalak:** sinadura elektronikoa erabiliz.

3.- Frogagiriak aurkeztea (zergadunak edo ordezkeri profesionalak):

- A) Ez da frogagiririk aurkeztu behar. Horrela, aitorpena bidalitakoan amaituko da aurkezpena, betiere baldintza hauek guztiak betetzen badira:
 - Transmisioaren kontraste gisa pasahitz operatiboa edo sinadura elektronikoa erabiltzea.

- Ohiko etxebizitza aitortpenaren urtean erosita ez ego-
tea, eta aitortpenan adierazitako datuak eta ZERGA IN-
FORMAZIOA zerbitzuan jasotakoak berdinak izatea.

B) Aurreko A) puntuko baldintzak betetzen ez dire- nean frogagiriak aurkeztuko dira.

Aitortpena aurkeztuztat jotzen da bigarren tramite hau bete denean. Horregatik, aitortpenak itzulketen ordainketa egiteko gairako beharrezko kontrolak frogagiriak aurkeztu ondoren bakarrik egin daitezke.

Tramite hori betetzeko:

Kontraste datua erabiltzen duten zergadunak

Gure bulegoetan edo postetxeetan: autolikidazio orriaren bi kopia inprimatu behar dira transmisio egin ondoren. Bai orri horiek eta bai frogagiriak DINA4 tamainako kartazal zuri batean sartu behar dira, eta kanpoaldean IFZ eta izen-abizenak jarri (ZergaBidean INPRIMATU aukerarekin lortzen den identifikazio etiketa erabili daiteke). Kartazala ematen zaigu.

Pasahitz operatiboa zein sinadura elektronikoa duten zergadunak

Aitortpena jasotzen duen fitxategia ongi bidali dela egiaztatu ondoren (hau da horretarako helbide elektronikoa) **Gipuzkoataria/Ogasun eta Finantzak/Aitortpen telematikoak/109 ereduak/Kontsulta bat egin, frogagiriak aurkeztu, datuak aldatu edo deuseztatu, edo ordainketak egin**, bi modutan aurkeztu daitezke frogagiriak:

- Internet bidez : erabiltzaileak frogagiriak eskaneatu behar ditu, eta eskaneatutako guztia fitxategi batean gorde. Aurreko helbide elektronikoa erabiliz (**Gipuzkoataria/Ogasun eta Finantzak/Aitortpen telematikoak/109 ereduak/Kontsulta bat egin, frogagiriak aurkeztu, datuak aldatu edo deuseztatu, edo ordainketak egin**), aitortpena hautatu behar du eta fitxategia igo FITXEROAK ERANTSI ikonoan saktuta.
- Gure bulegoetan edo postetxeetan: autolikidazio orriaren bi kopia inprimatu behar dira honako helbide elektronikotik **Gipuzkoataria/Ogasun eta Finantzak/Aitortpen telematikoak/109 ereduak/Kontsulta bat egin, frogagiriak aurkeztu, datuak aldatu edo deuseztatu, edo ordainketak egin** ataletik. Bai orri horiek eta bai frogagiriak DINA4 tamainako kartazal zuri batean sartu behar dira, eta kanpoaldean IFZ eta izen-abizenak jarri (ZergaBidean INPRIMATU aukerarekin lortzen den identifikazio etiketa erabili daiteke). Kartazala ematen zaigu.

Ordezkeri profesionalak

Aitortpena jasotzen duen fitxategia ongi bidali dela egiaztatu ondoren (hau da horretarako helbide elektronikoa: **Gipuzkoataria/Ogasun eta Finantzak/Aitortpen telematikoak/109 ereduak/Kontsulta bat egin, frogagiriak aurkeztu, datuak aldatu edo deuseztatu, edo ordainketak egin**), bi modutan aurkeztu daitezke frogagiriak:

- Internet bidez : erabiltzaileak frogagiriak eskaneatu behar ditu, eta eskaneatutako guztia fitxategi batean gorde honako helbide elektronikoa. "**Gipuzkoataria/Ogasun eta Finantzak/Aitortpen telematikoak/109 ereduak/Kontsulta bat egin, frogagiriak aurkeztu, datuak aldatu edo deuseztatu, edo ordainketak egin**" bidea eginez, dagokion errenta aitortpena aurkitu behar du, eta fitxategi hori igo FITXEROAK ERANTSI ikonoan saktuta.

- Gure bulegoetan: autolikidazio orriaren bi kopia inprimatu behar dira ondorengo helbide elektronikotik **Gipuzkoataria/Ogasun eta Finantzak/Aitortpen telematikoak/109 ereduak/Kontsulta bat egin, frogagiriak aurkeztu, datuak aldatu edo deuseztatu, edo ordainketak egin** ataletik. Bai orri horiek eta bai frogagiriak DINA4 tamainako kartazal zuri batean sartu behar dira, eta kanpoaldean IFZ eta izen-abizenak jarri (ZergaBidean INPRIMATU aukerarekin lortzen den identifikazio etiketa erabili daiteke). Kartazala ematen zaigu.

1.10.2 Modalitate mekanizatua

Edozein motatako errentak izan dituzten zergadunek erabil dezakete aitortpen mekanizatuaren modalitatea, ondoko hauek izan ezik:

- Jarduera ekonomikoaren etekin garbia zuzeneko zenbatespen arruntaren bitartez kalkulatu dutenak. Era berean, jarduera ekonomikoaren etekin kalkulatzeko zuzeneko zenbatespen erraztua erabiltzen duten zergadunek ere ezin dute modalitate mekanizatua erabili inbertsioen eta beste jardueren kenkarietara biltzen direnean¹².
- Errenten egozpenak lortzen dituzten zergadunek (nazioarteko gardentasun fiskala, interes ekonomikoko taldeen eta aldi baterako enpresa batasunen egozpenak, eta paradisu fiskalean kokatutako inbertsio kolektiboko erakundeak)¹³.
- Eskualdaketen ondorioz ondare irabazi edo galerak izan dituzten zergadunek, zergaldian egindako eskualdaketen zenbatekoa 100.000 eurotik gorakoa denean.
- Zergaldiaren barruan hamar ondare eskualdaketa baino gehiago egin dituzten zergadunek.

Autolikidazio hau hurrengo 1.13 apartatua zerrendatzen diren Errenta Mekanizatuko Bulegoetan egingo da. Horretarako, zergadunak hitzordua eskatu beharko du aldez aurretik 902 100 040 telefonora deituz edo Interneteko helbide honetan sartuz: www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta.

Aitortzaileak behar diren ziurtagiriak eta autolikidazioaren emaitza helbideratzeko kontu korrontearen zenbakia aldean dituela joan behar du dagokion bulegora. Ez du beste ezein inprimakirik eraman behar, enpresariak eta profesionalak izan ezik. Azken horiek 5. eranskina edo 6. eranskina aurkeztuko dute, euren jardueren etekin garbia kalkulatzeko erabiltzen duten erregimena zein den kontuan hartuz (zeinu, indize edo modulu bidezko zenbatespen objektiboa edo zuzeneko zenbatespen erraztua).

Aitortpena zergaduna ez den beste pertsona batek aurkeztu badu, zergadunaren baimena eta beronen IFZren kopia aurkeztuko ditu.

1.10.3 Autolikidazio proposamena

Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak proposatutako autolikidazioa, adostasuna ematekoa, jasotzen duten zergadunek erabili dezakete modalitate hau.

Autolikidazio proposamenetik ateratzen den kuota diferentziala ordaintzeko edo itzultzeko izan daiteke.

Adostasuna telefonoz eman ahal izango da, proposameneari adierazten den telefonora deituz (902 100 040), edo, bestela, bide telematikoa erabiliz Ogasun eta Finantza Departamen-

¹² Inbertsioen eta beste jarduera batzuen kenkariak "Kuota likidoa eta kenkariak" deituriko kapituluaz aztertzen dira, 12.6.1. apartatuan.

¹³ Ikus 7. kapituluak, egotzitako errentei buruzkoa.

tuaren web ofiziala dela medio: <http://www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta>.

Proposamena behin berretsi ondoren -zergadunari kontraste bat eskatuko zaio horretarako-, aitorpen-likidazioztzat hartuko da lege ondorioetarako.

Zergadunak ez badu adierazten, ezarrita dagoen epean, proposamenarekin ados dagoela, jarduketa administratiboa ez dela egin joko da, eta zergadunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena aurkeztu beharko du, beti ere horretara behartuta badago.

1.11 Zein da aitorpena aurkezteko epea?

Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako proposamenari adostasuna emateko epea 2014ko apirilaren 7tik ekainaren 25era bitartekoa da, biak barne.

Gainerako aitorpen modalitateetarako, aitorpenak aurkezteko epea **2014ko apirilaren 11n hasi eta ekainaren 25ean amaituko da**, biak barne.

LABURPENA: aitorpena aurkezteko epea 2014ko apirilaren 11n hasi eta ekainaren 25ean amaituko da.

1.12 Nola egiten da aitorpenen emaitza ordaindu eta itzultzeko?

Bankutik helbideratuta ordaindu edo itzuliko da aitorpenaren emaitza.

Oro har, emaitza ordaintzekoa denean, zergadunak hautatu dezake dena batera ordaintzea (2014ko ekainaren 30ean) edo bi zatitan ordaintzea, baita ordainketa geroratu edo zatikatztea ere, hala nahi badu. Bi zatitan ordaintzea aukeratuz gero, hauek dira epeak:

- 2014ko ekainaren 30era arte, zerga zorraren %60.
- 2014ko azaroaren 10era arte, gainerako %40a.

1.13 Non aurkeztu behar da aitorpena?

Aitorpen mekanizatua aukeratzten bada, aitorpena dagokion bulegoan aurkeztuko da. Hurrengo tauletan bulego bakoitzak zein herri hartzen dituen kontsulta daiteke (1. taula), bai eta herri bakoitzari zein bulego dagokion ikusi ere (2. taula). Udalerria zergaduna bizi den herria izango da.

Aitorpen mekanizatua: 1. taula Bulego eta udalerrien zerrenda alfabetikoa			
Bulegoa	Udalerria	Helbidea	Zergadunaren herria
1	Azpeitia	Julian Elorza etorb., 3	Aizarnazabal, Azkoiitia, Azpeitia, Beizama, Bidania-Goiatz, Errezil, Zestoa, Zumaia.
2	Beasain	Urbialde kalea, 1	Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gainza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain, Zumarraga.
3	Bergara	Toki Eder plaza 5, behea	Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate-Mondragón, Bergara, Elgeta, Eskoria-tza, Leintz-Gatzaga, Oñati.
4	Eibar	Arragueta kalea, 2	Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku, Sorluze.
5	Hernani	Latxunbe Berri kalea, 8-9	Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta.
6	Irun	Frantzisko Gaintza kalea 1, atzealdea (Iparralde hiribidetik sartuta)	Hondarribia, Irun.
7	Errenteria	Santa Klara plaza, 2	Lezo, Oiartzun, Pasaia, Errenteria.
8	Tolosa	San Frantzisko kalea, 45	Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Legorreta, Lizar-tza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil.
9	Donostia	Antso Jakituna hiribidea, 9	Aia, Getaria, Orio, Usurbil, Zarautz, eta Donostiako Amara Berria eta Amara Zaharra auzoak.
10	Donostia	Sekundino Esnaola kalea, 10-12	Donostia: Altza, Egia, Gros, Intxaurren, Bidebieta, Mirakontxa, Erdia, Alde Zaharra, Loiola, Martutene, eta Donostiako gainerakoa.
11	Donostia	Errotaburu pasealekua, 2	Donostia: Igeldo, Ibaeta, Añorga, Antigua eta Aieta.

Aitorpen mekanizatua: 2. taula
Udalerrien zerrenda alfabetikoa eta bakoitzari dagokion bulegoa.

Abaltzisketa	8	Donostia: Aiete	11	Lazkao	2
Aduna	8	Donostia: Bidebieta	10	Leaburu	8
Aia	9	Donostia: Erdialdea	10	Legazpi	2
Aizarnazabal	1	Donostia: Egia	10	Legorreta	8
Albiztur	8	Donostia: Gros	10	Leintz-Gatzaga	3
Alegia	8	Donostia: Ibaeta	11	Lezo	7
Alkiza	8	Donostia: Igeldo	11	Lizartza	8
Altzaga	2	Donostia: Intxaurren	11	Mendaro	4
Altzo	8	Donostia: Loiola	10	Mutiloa	2
Amezketeta	8	Donostia: Martutene	10	Mutriku	4
Andoain	5	Donostia: Mirakontxa	10	Oiartzun	7
Anoeta	8	Donostia: Alde Zaharra	10	Olaberría	2
Antzuola	3	Donostia: Gainerakoa	10	Oñati	3
Arama	2	Eibar	4	Ordizia	2
Aretxabaleta	3	Elduain	8	Orendain	8
Arrasate-Mondragón	3	Elgeta	3	Orexa	8
Asteasu	8	Elgoibar	4	Orio	9
Astigarraga	5	Errezil	1	Ormaiztegi	2
Ataun	2	Eskoriatza	3	Pasaia	7
Azkoitia	1	Ezkio-Itsaso	2	Errenteria	7
Azpeitia	1	Gabiria	2	Segura	2
Baliarrain	8	Gainza	2	Soraluze	4
Beasain	2	Gaztelu	8	Tolosa	8
Beizama	1	Getaria	9	Urnieta	5
Belauntza	8	Hernani	5	Urretxu	2
Berastegi	8	Hernialde	8	Usurbil	9
Bergara	3	Hondarribia	6	Villabona	8
Berrobi	8	Ibarra	8	Zaldibia	2
Bidania-Goiatz	1	Idiazabal	2	Zarautz	9
Deba	4	Ikaztegieta	8	Zegama	2
Donostia: Altza	10	Irun	6	Zerain	2
Donostia: Amara Berria	9	Irura	8	Zestoa	1
Donostia: Amara Zaharra	9	Itsasondo	2	Zizurkil	8
Donostia: Antigua	11	Larraul	8	Zumaia	1
Donostia: Añorga	11	Lasarte-Oria	5	Zumarraga	2

1.14 Zergaren zati bat erlijio xedeetarako edo beste helburu sozial batzuetarako ematea

Dagokion laukian "X" bat jarritz, zergadunek adieraz dezakete zertarako nahi duten erabili kuota osoaren %0,7:

- Eliza Katolikoari laguntzeko.
- Interes sozialeko beste xede batzuetarako.
- Ez baterako eta ez besterako.

1.15 Hautazko likidazioa (lanaren etekinak)

1.15.1 Nork duen aukera

Zergadunak jaso dituen lan etekin gordinak 12.000,00 eurotik gorakoak eta 20.000,00 eurotik beherakoak direnean, eta aitorpena aurkeztera behartuta badago lan etekinak jaso dituelako (ordaintzaile bat baino gehiago, lan kontratu bat baino gehiago, ezkontidearen pensio konpentsagarriak, etab.)¹⁴ bi modutara ordain dezake zerga:

- PFEZren xedapen orokorre jarraiki.
- lanaren etekin gordinak bakarrik kontuan hartuz, eta horretarako, **hautazko likidazioaren** orria bete behar du.

1.15.2 Nork ez duen aukerarik

Besteak beste, honako zergadun hauek ezin dira aurreko apartatuan aipatu den aukeraz baliatu:

- 20.000,00 eurotik gorako lan etekin gordinak jaso dituztenak.
- Kapitalaren etekinengatik eta ondare irabaziengatik (salbetsitakoak barne bi kasutan) **1.600,00 euro gordin baino gehiago lortu dituztenak.**
- Jarduera ekonomikoen etekinak lortu dituztenak.
- Salbuespen, hobari, murrizketa, kenkari edo beste edozein zerga onuraz gozatzeko ezarrita dauden baldintza, epe edo zirkunstantzietako bat betetzen ez dutenak, baldin eta horrek berekin badakar Zerga Administrazioari zirkunstantzia horren berri ematea edo erregularizazio edo dirusarreraren bat egin behar izatea.

1.15.3 Prozedura

Lehendabizi kuota osoa kalkulatu behar da, eta horretarako atxikipen portzentajea aplikatuko zaio lan etekinen baturari. Ondoren, kuota horretatik kenduko dira lan etekinei egindako atxikipenak eta konturako sarrerak.

Aplikatu behar den atxikipen portzentajea jarraian agertzen den taula orokorretik aterako da:

- "Urteko etekintzat" diruz eta gauzen bidez jasotako ordainsarien batura hartuko da (pensio planei eta BGAEei egindako egozpenak sartu gabe).
- "Ondorengo ahaideen kopurutzat", kenkari honetarako eskubidea ematen dutenen kopurua hartuko da. Pensioak eta hartzeko pasiboak jasotzen dituztenek ondorengo ahaide bati dagokion zutabea hartuko dute kontuan taulako atxikipen portzentajea kalkulatzeko,

beti ere kenkarirako eskubidea ematen dieten ondorengo ahaideak bi edo gehiago ez badira.

Zergaduna aktiboan dagoen langile desgaitua bada eta, Errenta Zergari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 24. artikularen arabera, lanaren hobaria gehitzeko eskubidea badu¹⁵, lehen-lehenik atxikipen taula orokorra aplikatuko du. Horrela lortutako atxikipen portzentajeari behar diren puntuak kenduko zaizkio, taula orokorraren ondoren ageri den desgaituen taula behin aplikatuta.

Atxikipen portzentajea lortutakoan, lan etekin gordinen baturari aplikatu behar zaio. Horrek kuota osoa emango du. Kuota horri atxikipenak eta konturako sarrerak kenduz kuota diferentziala lortzen da.

Tributatzeko prozedura hau erabiliz gero, ez da inoiz itzulketarik egingo.

TAULA OROKORRA

Urteko Etekina		Ondorengo Ahaideen Kopurua						
Euroak beheko muga	Euroak goiko muga	0	1	2	3	4	5	> 6
0,01	11.640,00	%0	%0	%0	%0	%0	%0	%0
11.640,01	12.110,00	%1	%0	%0	%0	%0	%0	%0
12.110,01	12.610,00	%2	%0	%0	%0	%0	%0	%0
12.610,01	13.160,00	%3	%1	%0	%0	%0	%0	%0
13.160,01	13.760,00	%4	%2	%0	%0	%0	%0	%0
13.760,01	14.420,00	%5	%3	%0	%0	%0	%0	%0
14.420,01	15.140,00	%6	%4	%2	%0	%0	%0	%0
15.140,01	15.930,00	%7	%5	%3	%0	%0	%0	%0
15.930,01	17.110,00	%8	%6	%4	%1	%0	%0	%0
17.110,01	18.510,00	%9	%7	%5	%2	%0	%0	%0
18.510,01	19.850,00	%10	%9	%7	%4	%0	%0	%0
19.850,01	21.350,00	%11	%10	%8	%5	%2	%0	%0

DESGAITUEN TAULA

(Taula orokorraren gaineko murrizpena)

Urteko etekina		Gehitutako hobaria	
euroak beheko muga	Euroak goiko muga	M1 - 10/2006 FAren 24.3a) art.	M2 - 10/2006 FAren 24.3b) art.
0,01	22.830,00	9	12

Adibidea

Demagun ezkongabe dagoen eta seme-alabarik ez duen zergadun batek bi lan etekin izan dituela 2013. urtean, biak ere, bi kontratatutatik etorriak. Aitorpenari begira, honako datu fiskal hauek bakarrik dira garrantzizkoak:

	1. kontratua	2. kontratua
Etekin osoa	10.392,00 €	8.714,17 €
Gizarte Segurantzza	250,36 €	200,40 €
Jansandako atxikipena	103,92 €	0,00 €

14 Ikus kapitulu honetako 1.2 apartatuan nor dagoen aitorzera behartuta.

15 Ikus lanaren hobariei buruzko 2.6 apartatua.

Zerga ordaintzean, bi aukera izango ditu zergadunak:

1. aukera: modu orokorrean tributatzea

Laburki, honela likidatuko litzateke Zerga:

Lanaren etekin osoa (10.392,00 € +8.714,17 €)	19.106,17 €
Gizarte Segurantzaren gastua	- 450,76 €
Diferentzia	18.655,41 €
Lanaren hobaria	- 3.000,00 €
Lanaren etekin garbia	15.655,41 €
Oinarri likidagarri orokorra	15.655,41 €
Kuota osoa	3.655,01 €
Kenkariak	
-Kenkari orokorra	- 1.375,00 €
Atxikipenak (103,92 €)	- 103,92 €
Kuota diferentziala	2.135,09 €

2. aukera: 10/2006 F. Arauaren 104.3 artikulua arabera tributatzea

Zerga honela likidatuko litzateke:

Etekin osoen batura	19.106,17 €
Atxikipen portzentajea	%9
Kuota	1.719,56 €
Atxikipenen batura	- 103,92 €
Kuota diferentziala	1.615,69 €

Zergadunak bigarrena aukeratuko du zerga gutxiago ordaintzea dakarkiolako.
